

IMAZ BERTSOLARIA ESKOLA (1998-2008)

10 URTE HISTORIA EGITEN, BERRITZEN



Altzoko Imaz Bertsolaria herri eskolak, 9 urte itxita egonda gero, bere atea zabaldu zituen 1998ko irailaren 9an. Egun horretan, bi irakasle eta bederatzi haur sartu ziren udaletxe azpiko eskola zaharrean, herriko eskolaren historiaren atal berria gauzatzen hasteko.

2008 ikasturte amaiera (2008-06-14). Bertan daude 1998az gero eskolan ibili diren edo dabilzan gazte eta haur guztiak. Udaletxe azpiko eskola ohiaren leihoak dituzte atzean.

Gurasoen nahiak, irakasleen gogoak, udalaren babesak eta, nola ez, ikasleek eman diote gorputza asmo ari. Hamar urte geroago, errealitate sendoa da Eskola. 2007-

Bilakaera azkarra eta bizia izan du gure eskola txiki honek eta, dagoenerako, ez da hain txiki, eta guztiz sendotua dago: Udaletxe azpiko oroitzapenez beteriko eskola gela zahar eta txiki hark, Santa Barbara atzean eraiki den eskola gune berriari eman dio paso (berria diogu, baina zahar-berria esan genezakeen, XIX mendean Santa Barbaran baizen eskola, mutilena behintzat); 2-4 urte bitarteko 9 haur haiek, 2-12 urte bitarteko 58 dira; hasierako irakasle bi zirenak, **13 dira orain (denak ez lanaldi osoan)**; jan-gela eta zaintza zerbitzua eskaintzen dira; ekimen handiko Guraso Elkarteak eskolak adina urte daramatza lanean. Horrezaz gain, eskola proiektuaren osagarri, gaur egun Lizarbe etxepean dagoen Haur Eskola jarri zen abian **2006-07 ikasturtean**

Beste edozein bide bezala, bide hau ere ez da izan zuzen-laua; izan ditu gorabeherak, jira-birak, oztopotxoak. Baina goian hitz gutxitan emandako argitasunek, guztiak gaintitzen eta onbideratzen asmatzen ari garela erakusten du. Eskola ez da gaur egun haurrak bidali eta irakasleen erakusten dien lekua soilik. Eskolan, irakasleen, ikasleen, gurasoen eta, nolabait ere, herri osoaren nahi, helburu, sentsibilitate biltzen dira, eta horien arteko uztarduran dago indarra. Horregatik, nahiago izan dugu horiei, protagonista izan direnei galdetzea, izandako bizipenez, gozo-gaziez, etorkizunaz...

ELENA ARRIZABALAGA, ZUZENDARI OHIA¹



Zuk heldu zenion eskola abian jartzeko desafioari. Orain, beste eskola batean ari zara lanean, zer nabarmenduko zenuke 10 urteko ibilbide horretaz?

Hamar urte horietan dudarik gabe egun eta egoera gazi gozoak bizi izan ditugu eskola osatu dugun guztiok. Baina garbi dago bizitzaren gurpila dela.

Egia esan, duela hamar urte ilusio handiz joan nintzen Altzora eta herrian ilusioa arnasten zen. Nire aldetik bi emozio nabarmen nituen ilusioa eta kezka. Ardua handia sentitzen nuen baina guraso eta udaletxearen aldetik izugarritzko babesa sentitu nuen, nigan sinesten zuten eta horrek indar handia ematen zidan. Gainera ikasleak genituen egunero gure zain, eskolara sartzeko gogo biziz.

Eskola Txikia izanik zailtasun handiak izan genituen administrazioarekin, sinetsi arte gure eskola kalitatezkoa zela. Guztion indarrak bateratuz eta etsipenari aurre eginez, guraso batzuen ametsa egia bihurtu zen. Imaz Bertsolaria eskola indartsu ikusten dut ikasle, guraso, udala eta irakasleei esker.

Gaur egun eskola ikustean harrotasun puntu bat sentitzen dut, ni ere bere historiaren partaide xume bat izan naizelako. Eskola horretan bizitako hainbat momentu ederrak nire bihotzeko leku goxo batean gordetzen ditut eta pentsatzen dut beraiek ere, gordeko dutela lekutxo bat nirekin tarteka gogoratzu. Gaizki eginak eta esanak barkatzea espero dut.

Garbi daukat, merezi izan zuela Agustin Amianori kasu egitea eta 98ko uda hartan nire gela berria prestatzera joan izana.



IRAKASLE TALDEA

Aurrera begira, zeintzuk dira Eskolaren helburu nagusiak?

Altzoko herritarrok, orain dela 10 arte, eskola berreraikitze nahia eta beharra sentitu bazenuten, ezinbestekoa izango zen gogoak eta indarrak batzea zuon helburua lortzeko. Eskolak bizirik badirau, proiektu honi hainbat guraso, irakasle eta herritarrok babesa eman eta bere alde lan egin dutelako izan dela, dudarik ez dago.

Hemendik aurrerako urteetan eskolak iraunaraztea litzateke gaur egungo irakasle onen asmo nagusienetako bat. Irautea bai, baina eskola txikia izan arren, kalitatezko ziurtagiriarekin, kalitate hitzak esan nahi duen guztiarekin:

- Irakasle talde sendo baten gidaritzapean
- Ikasgeletan lan egiteko era aurrerakoi eta berritzailea erabiliaz
- Ikasleei euskal nortasuna eta kultura transmitituz eta bizitzarako oinarritzko gaitasunetan heziz
- Ikasleen arteko desberdintasunak aberastasun moduan hartuz, baina baliabide pertsonal eta materialak eskainiz

¹ Elena Arrizabalaga izan zen Altzoko Imaz Bertsolaria Eskola bizi-berritzeko zuzendaritza hartu zuen irakaslea. Zuzendari ardua izan zuen 1996 arte. 1998an utzi zuen Eskola hau eta Tolosako Samaniegon ari da orain.

- Gurasoen laguntza eta parte hartzea bultzatuz (egiteke dauden proiektuetan, eskolaz kanpoko jardueretan, ikasgeletako ekintzetan...)
- Udalaren eta administrazioako zenbait erakundeen laguntzak izanez

Argi dago, gure eskolaren proiektua komuna dela eta elkarren beharra dugula (guraso, irakasle, ikasle, herritar...) bidean aurrera egiteko, horregatik, elkarrekin eta elkarren errespetuan oinarritzen badugu gure egitekoa, ziur, eskolak iraungo digula, partaide garen guztion helburua lortuz.



AGUSTIN AMIANO GURASO ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Orain Artekoa: Egoskor samarra izateak ekartzen dituela batzuetan ondorio onak ere. Horrela jarri ginen orain dela 10 urte, egoskor, temati, tinko gurearekin, amore emateko itxurarik gabe. Eskola behar genuela eta eskola behar genuela; gure herrian bazuela etorkizunik, ziur geundela horretaz. Behako eskola zabaldu, ez zegoen beste erremediorik.

Hor ari da hazten, lur gozoan gereziondoa bezala. Eta argi dago zein beharrezkoa den, zer nolako poza ematen dion eskolak herriari eta zein premiazkoa duen eskolak herria. Elkar korapilatuta daude. Nik alfer-alferrik kontatuko ditut eskolako pasadizoak Altzon, bertan ikasia ez naizelako; entzungo ditut besteenak baina erantzunik gabe geratzen naiz. Hamar urtetan zuhaitza hazi egin da, loratu, kimu berriak urtero ageri ditu, enborra sendotzen ari zaio eta aurki fruituak ematen ikusiko dugu. Herri osoak gozatu behar du bertatik.

Aurrera Begira: Aurrera begiratzea da egitekoa. Guztiok lagundu behar dugun egonkortasunean, guztiona dela erakutsiz. Elkarrekiko konfiantza behar-beharrezkoa dela uste dut. Horrela bada, eskola aurrera joaten ikusiko dugu: bailarako ikastetxeekin lotuta, teknologia berriei muzin egin gabe, pedagogia eraikitzaileekin bat, herrian murgilduta, bertako kulturaren oinarri sendo, gazte bezain lirain , txikian handi.

IKASLEAK²

ZER OROITZAPEN DUZUE ALTZOKO ESKOLAKO PASADIZOAZ?



Arantxa Urdangarin Iztueta

Altzoko eskolak, irakaskuntzaz aparte, hainbat aukera eman dizkit. Batik bat, herriko jendea ezagutu ahal izateko. Beste alde batetik, eskolaz kanpoko ekintza asko burutu ahal izan ditut, gerora laguntza handia eman didatenak, Altzotik aparte: musika, dantza, marrazketa... Eskolan bertan ere, txiki txikitatik gauza ezberdin asko ikasi ahal izan ditut, ikasgaietatik kanpo, adibidez antzerkia eta bertsolaritza. Eskertzekoa da, Altzo hain herri txikia izanik, hainbeste aukera izatea denborarekin oso beharrezkoak etorri zaizkidanak. *(Tolosako Laskorain Ikastolan dabil orain)*

² Altzoko eskola honetan ibili eta DBH.n, dagoenerako beste eskola batean, dabilzan guztiei galdetu diegu



Maddalen Zapirain

Oso oroitzapen onak ditut Altzoko eskolari buruz. Gogoan dut oso pozik joaten nintzela eskolara, eta oso ondo pasatzen genuela denok, batez ere, txikitan jolasean. Gogoratzen dut ohe txiki bat genuela, eta gaixo zegoena bertan etzaten zela. Sukalde bat ere bagenuen, eta izugarritzko ilusioa egin zigun benetako platerak eta kubiertoak ekarri zizkigutenean. Baita ere ikaragarri gustatzen zitzaidan Ertotxen zeuden mozorroekin mozorrotzea. Irakasleez ditudan oroitzapenak ere oso onak dira. *(Alegiako Aralarren dabil orain)*

Unai Mujika

Gogoan dut hasieran, bi urte nituela, Alegiako eskolara joan behar izan nuela Altzokoa itxita baitzegoen. Gero, urte batera, Altzoko eskola ireki zutenean etorri nintzen Altzora. Gogoratzen naiz hasieran oso ume gutxi ginela; uste dut, guztira, bederatzi ginela. Aurreneko urteak udaletxe azpiko gelan pasatu genituen. Gogoan daukat oraindik, jolastorduetan nola ibiltzen ginen eskolaren atzeko parke txikian. Handik urte batzuetara, udaletxe azpitik Lizarbe etxearen azpiko gela batean igaro genituen urte batzuk; gela hartan numen gehiago ginen. Azkenik, Santa Barbara ermitaren atzeko eskola berrian igar onuen azkeneko urtea, Altzoko Imaz Bertsolaria Eskolan. *(Alegiako Aralar eskolan dabil orain)*

Rosa Hijona

Dauzkadan oroitzapen guztia konak dira, ze, lagunak, azkar egin nituen eta irakasleekin ere harreman oso ona eduki izan dut. Orain gutxiagotan igo arren, harreman ona daukat guztiekin. *(Tolosako Hirukiden dabil orain)*



Ane Balerdi

Jolas orduetako denbora, gurasoei eskainitako kurtso amaierako ikuskizunak etab. kontutan hartuta, oso oroitzapen onak ditut. Bat aipatzekotan, Olentzeroren etorrera. *(Alegiako Aralar eskolan dabil orain)*



Aintzane Galarraga

Ni eskola ireki eta urte bat beranduago hasi nintzen. Gelan ez ginen asko nahiz eta adin ezberdinetakoak egon. Irakasleen aldetik arreta handia izaten genuen. Familia bat bezalaxe ginen. *(Alegiako Aralar eskolan dabil orain)*



Mari Murua

Oso oroitzapen onak ditut, oso ondo pasatzen bainuen bertan. Nahiz eta jende gutxi izan lagun asko nituen eta ditut oraindik, nire lagunak izaten jarraitzen dute-eta. Irakasleekin ere oso gustura egon nintzen klase batzuk gustuagokoak izaten nituen arren, esate baterako gimnasia, baina oso jatorrak ziren denak. (*Alegiako Aralar eskolan dabil orain*)



Ane Urrestarazu:

Nik oso ondo pasatzen nuen Alzoko eskolan. Gutxi ginen eta andereñoek gauza guztietan laguntzen ziguten. Hain ondo pasatzen genuen ze klaseak ere azkar-azkar pasatzen zitzaizkigun! (*Alegiako Aralarren dabil orain*)

GURASOAK³

- 1) Bizitzako esperientziatik, zein da ondorio edo balorazio nagusia?**
- 2) Zer eskatuko zenioke aurrera begira?**

Jexux Mari Urdangarin / Milagros Iztueta

1) Gu Alzora etorritakoak eta herritik aparte samar bizi garenak izanik, eskolak balio izan digu herriko dure adineko jendearekin tratatu eta harremanak izateko. Eskola bezala, berriz, oso gustura gaude umeez hartutako ikasketekin zeren eta, orain Laskorain ikastolan dabil eta nahiz eta beldur pixka bat genuen, ikusi dugu ondo prestatuta joan dela.

Juan Joxe Mujika / Koro Dorronsoro

2) Eskolari aurrera begira, orain bezain ondo segitzea eskatuko genioke. Baita ere, denentzat tokia izatea eta guztiak gustura egotea bertan.

Pilar Irizar / Inaxio Balerdi

1) Herri txikia izan arren, oso aberasgarria da bertan, honelako eskola bat edukitzea.

Nekanez Loinaz/Joxean Lasa

1)Haurra hazi eta bizi behar duen herrian, heziketa ahalbideratzea izan da funtsezkoena. Haurra, eskola komunitateko kide eraginkor eta garrantzitsua izan da. Eskolak pertsona bezala hezten eta heltzen lagundu dio eta inguru hurbilekiko eta herriarekiko lotura duen partaidea dela sentiarazi dio.

2) Eskola, izaera eta bizitza propioa duen erakunde garrantzitsu bezala, hazten eta bilakatzen jarraitzea.

Xabier Olano/Amaia Aranalde

³ Guraso guztiei bi galdera egin dizkiegu eta nahi dutenei erantzuteko aukera eman: biei, bietako edo zieni edo erantzungabe utzi. Hemen dituzue jaso ditugun erantzun guztiak.

1) Haurren heziketaz gain, bizitasuna eta alaitasuna eman dio Eskolak herriari. Askoren lanaz, ilusioa errealitate bihurtu da.

2) Haurrentzat heziketa proiektu egokia lantzea, guraso, ikasle, irakasle eta Administrazioa elkarrekin eta elkarlanean arituz.

Lurdes Murua/Joxemari Zapirain



1) Gure bi alabak Alzoko eskolan egin dute bere lehen ibilbidea. Dagoeneko Maddalenek 3.en urtea darama Alegian eta ondo bada datorren urtean Irati han izango da. Esan gure esperientzia irakaskuntza arloan oso ona izan dela, bai ikasketetan (kalitatezko irakaskuntzarekin), eta baita ere harreman mailan lagunartean eta irakasleekin. Eskola hau irekitzea apustu latza izan zen baino gure ustetan bere fruituak ematen ari da. Lortu da herriko haurrak bere lehen urtetan herrian geratzea, herri bizi eta dinamiko bat eragitea eta horren

inguruan era diferentetako hainbat ekintzetan parte-hartzea (kirola, musika, dantza etb.)

2) Gutxienez orain bezala jarraitzea, zutabeak gero eta sendagoak eginez, guraso irakasle eta ikasleen harremanak hobetzen joan elkar lan on eta integratzaile bat eginez. Eta ahal bada irakasleen finkotasuna lortu.

Maitia Antolin / Miel Angel Murua

1) Herri honetan azken urteetan egin den apusturik garrantzizkoena eta emankorra dela deritzogu. Hasierako baldintzak edo gabeziak urtez urte hobetzen eta osatzen joan dira (eraikina, zerbitzuak, eskolaz kanpoko jarduerak...) usterik baikorrenak ere txiki utziaz. Herrian eskola izatearen garrantziaz jabetzen garenak asko garela esan dezakegu, baina uzta biltzen hasi besterik ez gara egin.

Maixa Lizarribar

1) Balorazio nagusia oso ona da. Herrian eskola izateak, herriko jendearekin harreman gehiago izaten laguntzen du. Herriari, bizia ematen dio eskolak. Haurrek, herrian bertan egiten dituzte lagunak, eta herriarekiko lotura gehiago dute.

2) Orain indartsu egon arren, ahal den gehien irautea herrian, berriro.



Ramon Zabala

1) Eskola berriro zabaltzea Altzon, pozgarria izateaz gain, zentzu zabalenean hartuta, gure herria handitzen eta garatzen ari den adierazle da.

2) Eskola komunitateko parte garen gurasook ere, eta bide batez herriko beste helduek, eskolaren onura izan dezagun ekintzak

bideratzea egokia litzateke: alfabetatze edota euskalduntze ikastaroak, bestelako ikastaroak...

Migel Mendieta eta Arantxa Menendez

1) Guk eskolaren balio integratzailea azpimarratu nahiko genuke. Gure erantzuna bertako seme-alabak ez izatearen ondorioa da. Tolosa gertu egoteak eta bertakoak izateak ez zuen lagundu gure integrazioan. Altzora bizitzera etorri ginenean ez genuen bertara egiteko beharrik sentitzen, beraz gutxitan etortzen ginen plazara, Altzoko jende gutxi ezagutzen genuen... eta agian, Altzon 11 urte bizitzen pasa eta gero, hala jarraituko genuke gure alaba jaio izan ez balitz. Irune altzotarra da, eta horixe da bere erantzuna nongoa den galdetzen diotenean. Altzotarra sentitzearen arrazoia bertan hazitako umea dela da, lagunak bertakoak ditu eta kanpoan egon ondoren Altzora itzultzeko irrikitan egotan da, bere etxera (behin, txikitan esan zidan "Tolosatik Altzorako bidea politagoa da Altzotik tolosara joatekoa baino"). Hau herrian eskola egon ez balitz nekez lortuko litzateke.



Marta Agirrezabala

1) Lehenik eta behin zorionak apustu horretan hainbeste ordu sartu zenituzten herritarrei. Guri, herriak eskola zerbitzua eskaintzeak Altzon bizitzeko hautua egiten lagundu zigun. Bestalde, umeek, herrian errotzen lagundu du; beraien lehen urratsak herrian ematean, hitz bitan esanda, herri-identitatea lortzen ari dira gure umeak.

Horrezaz gain, herri-eskola edo Eskola Txikia izatean adin ezberdinetako haurren hartu-emanak aberatsagoak egin dituela iruditzen zait. Era berean, ikasle, guraso eta irakasleen arteko harremana ere nahikoa gertukoa dela uste dut. Umeek, gertuko inguruan (soziala, kulturala, ingurumen aldetikoa) dituzten baliabideak gure herriaren berezko baloreak landu dituzte askotan, eta hori oso aberatsa dela iruditzen zait.

2) Orain artekarekin oro har oso pozik egon arren, ondorengo hauetan sakonduko nuke: batetik, potentzialtasun bezala jarri dudan arren guraso eta irakasleen arteko harremanean sakontzea egokia iruditzen zait. Gure, umeen heziketak denon elkarlanean oinarritzen dela sinesten dudalako; eta bestetik, herri txikiek eskaintzen dituzten baliabide eta aukerei gehiago heldu eta landu eguneroko gaien inguruan (nekazal ingurua, euskara txukun eta jatorra, berezko baloreak...).



Eskola berria: 2006ko irailean zabaldu zituen atea